

BIZIAK GORAK ALDATU NAU

Doinua: "Itsasoan urak haundi"

1

Mobidu nintzan mobidu
orain ezin errendidu;
Bizian Goran sartu nintzan ta
ezin naz kabidu.
Azaletik naz txikitu
baina barrutik haunditu,
Jaunak nigan hau egin ondoren
zelan ez harritu!

2

Lehen baliogabekoak
ta orain baliozkoak,
aldrebes jarri deustaz Jesusek
nire balioak.
Hareik ziran pasokoak,
honeik, barriz, betikoak;
A zer indarra daukan Jesusen
Ebanjelioak!

3

"Neure burua salbatu",
bestez ez nintzan kezkatu;
Bizian Gorak begi-bihotzak
eustazan zabaldu.
Jaunak ninduan askatu,
hurkoagana bialdu;
altxor hobe aurrkitu ahala
dana neban saldu.

4

Urruneko Jaungoikoa
gaur egin jat etxekoa;
bildurrezkoa zana egin jat
maitagarritzkoa.
Jesus da bitartekoa,
"aixkide" bihotzekoa;
neugandik dakit: hori daukanak
badauka nahikoa.

5

Lehengo lege ta dotrina,
etenbako ahalegina...
kristau bizitza gertatu jatan
onartu ezina.
Gaur Jesus dot lagun fina,
nire poz ta atsegina;
legea barik, Pertsona bat da
nire maitemina.

6

Hau aldaketa sakona
neure bizitzan emona!
Jaunak bakarrik aldatu daike
barrutik gizona.
Hau da poz ta zoriona,
bihotzetik dariona!
Bizian Gorak erakutsi deust
zer dan Barri ona.

Aita Martzel